

ANTOLAKUNTZA

- 0.- SARRERA
- 1.- EGUNGO EGOERA
- 2.- LIBERATUEN EZAGARRIAK
- 3.- BITEZHARREN DESKRIBAPENA

LIBERATUEN IHARDUERA

- 4.- BITEZHARREN BARRUTIAK
- 5.- DINAMIKO BARRUTIAK
- 6.- ERABAKUNTZA
- 7.- ERABAKUNTZA
- 8.- ERABAKUNTZA
- 9.- ERABAKUNTZA
- 10.- ERABAKUNTZA
- 11.- ERABAKUNTZA
- 12.- ERABAKUNTZA
- 13.- ERABAKUNTZA
- 14.- ERABAKUNTZA
- 15.- ERABAKUNTZA
- 16.- ERABAKUNTZA
- 17.- ERABAKUNTZA
- 18.- ERABAKUNTZA
- 19.- ERABAKUNTZA
- 20.- ERABAKUNTZA
- 21.- ERABAKUNTZA
- 22.- ERABAKUNTZA
- 23.- ERABAKUNTZA
- 24.- ERABAKUNTZA
- 25.- ERABAKUNTZA
- 26.- ERABAKUNTZA
- 27.- ERABAKUNTZA
- 28.- ERABAKUNTZA
- 29.- ERABAKUNTZA
- 30.- ERABAKUNTZA
- 31.- ERABAKUNTZA
- 32.- ERABAKUNTZA
- 33.- ERABAKUNTZA
- 34.- ERABAKUNTZA
- 35.- ERABAKUNTZA
- 36.- ERABAKUNTZA
- 37.- ERABAKUNTZA
- 38.- ERABAKUNTZA
- 39.- ERABAKUNTZA
- 40.- ERABAKUNTZA
- 41.- ERABAKUNTZA
- 42.- ERABAKUNTZA
- 43.- ERABAKUNTZA
- 44.- ERABAKUNTZA
- 45.- ERABAKUNTZA
- 46.- ERABAKUNTZA
- 47.- ERABAKUNTZA
- 48.- ERABAKUNTZA
- 49.- ERABAKUNTZA
- 50.- ERABAKUNTZA



DOKUMENTAZIO ZENTROA
TxT 20099

AURKIBIDEA

0.- SARRERA

1.- EGUNGO EGOERA

2.- LIBERATUEN EZAUGARRIAK

3.- BETEBEHARREN DESKRIBAPENA

3.1.- ESKUALDEA

3.1.1.- EEr, Ant. eta Elren ARDURA

3.2.- HERRIALDEA

3.2.1.- EGOITZAREN ADMINISTRAZIO ARDURA

3.2.2.- APARATUEN ARDURA

3.2.3.- ESKUHARTZE EGITUREN ARDURA

3.3.- NAZIONALA

3.3.1.- APARATUEN ADMINISTRAZIO ARDURA

3.3.2.- "STAFF"en ARDURA

3.3.3.- APARATUEN ARDURA

3.3.4.- ESKUHARTZE EGITUREN ARDURA

4.- IHARDUTEKO MEKANISMOAK

4.1.- HELBURU POLITIKA

4.2.- ARDUREN EBALUAKETA MAILAK

4.3.- KOKAPEN ETA BIRKOKAPENAK

4.4.- LIBERATUEN BILERA

4.5.- BULEGO ORDUTEGIA

4.6.- OPORRALDIA

4.7.- EGOITZATIKO AUSENTZIAK

4.8.- KONTROLA ETA BURUTZAPENA

5.- DINAMIKA HAUEN GARAPENERAKO MEKANISMOAK

1.- EGUNGO EGOERA

0.- SARRERA

Lehenik eta behin, Biltzarrea oraintsu burutu dugularik sindikatuan honelako lan bati ekitearen zergatia edo zioa azertu beharrean gaude. Biltzarreak erakundearen kokatze orokor eta teorikorako bitarteko garrantzitsua jarri du gure esku, antolakuntza egitura zehazki garatuz. Hala ere, ezin ahanzi beronetan azertu (2.3 atala) eta gainditu behar ditugun egoera eta arazoak.

Gutziz baliogarria den bitarteko honek militanteen egituraketa eta bereziki liberatuena areago zehaztera eraman behar gaitu, berau, erakundearen osagaietako bat besterik izan ez arren oso garrantzitsua baita gure Sindikatua sakontasunez garatzeko.

Gure helburua, Biltzarrean onetsitako Antolakuntzari buruzko Txostenaren atal garrantzitsu bat garatzea eta sakontzea da, beharrezko bitarteko zuzentzaileak eta etorkizunean iharduteko jarraibideak kokatzeko diagnostiko egoki bat egitea ahalbideratzen duelako.

Eztabaida honi eta bere ondorioei ekiterakoan ikuspegi ekarle eta zabalez eta aspalditik nozitzen ditugun arazo, inertzia eta aje historikoek eskatzen diguten bezainbateko irmotasunez jokatu behar dugu.

1.- EGUNGO EGOERA

Unean uneko beharrizanei erantzuteko handiagotuz joan den lan talde bat daukagu. Areagotze hori, ordea, egindako lanen inolako balorazio eta kontrolik gabe eta beraren behar eta hedapena objektiboki aztertu gabe egin da.

Daukagun lan taldea, partaide bakoitzaren kokapen egokia eta beraien egokitasuna sakonki aztertu gabe segitzen badugu, proiektua bera arriskutan jarriko lukeen egoera batekin egin dezakegu topo.

Azken bolada honetan militantziaren tentsio murrizpena igarri dugu, nabarmenagoa azken urte honetan. Honek eguneroko zereginetan -dinamika zehatzak, ordutegiak, e.a.- eta beste hainbat arlotan ere -partehartzea, eguneratzea, trebakuntza mailaren egokitzapena, e.a.- norberaren ilusiorik eza eta erlajazioa ekarri ditu, gure militanteak egun gainditu behar ditugun erronka garrantzitsuetara egoki daitezen eragozten duena.

Begibistakoa da LABek arlo askotan aurrerapauso handia eman duena, baita hori militanteen lanari esker lortu dena ere, baina ezin gaitu horrek itsutu; dinamika zein, erakundea jorratzen ari den uneari egokitzeko prestakuntza eta egokitzapen arloan, militantziak ez baitu markatzen ditugun helburuen lorpena ahalbideratuko digun pausorik eman.

“Funtzionarizatze” garrantzitsua igartzen da une hauetan. Egoera hau helburuengatik ilusioz eta berauek lortzeko militantziaren lanak daukan garrantzia kontutan hartuz gainditu behar dugu.

Ezin dugu onartu eztabaida hau eta beronen ondoriozko mekanismoak egoera betirakotzeko izapide hutsa izatea, horrekin hartzen dugun erantzunkizun maila kontutan hartuz batik bat.

3.- BETEKIZUNEN DEFINIZIOA

3.1.- ESKUALDEA

2.- LIBERATUAREN PERFILA

3.1.- HERRIALDEA

3.1.1.- Egoitzaren Administrazio Ardura

3.1.2.- Aparatuaren ardura

Helburutzat daukagun erakunde motak militantzia-egitura guztien arteko, hots, militante liberatu eta liberatuak ez direnen arteko oreka behar duela kontutan hartuz, Sindikatuan dedikazio eskusiboz ari diren militanteen taldeak Erakundearen beharrizan eta erritmoen arabera egunez egun garatuz doan motore eta islada izan behar du.

3.1.3.- Erakundearen Egituren Ardura

Liberatuak, LAB erakundearen dedikazio osoz diharduen militante den aldetik - halakotzat bai menpekotasun ekonomikoa daukatenak, bai instituzionalak zein ordu sindikalak pilaturik daukatenak hartuz-, Sindikatuaren baitan unean unean sortzen diren beharrizanetarako dedikazioa eta prestutasuna eduki behar ditu funtsezko euskarri.

3.2.- NABIA

Beste alde batetik, trebakuntza maila, eguneratzea eta bere prestakuntzaren aurrerapena, Sindikatuaren bilakaerarekin bat eta bere erantzunkizun mailaren beharrizanei lehentasuna emanez liberatuak landu eta jorratu behar dituen arloak dira.

3.2.1.- Egituraren Administrazio Ardura

3.2.2.- Erakundearen Ardura

Liberatuek jarrera zabal eta prestua izan behar dute egitura ezberdinek euren erantzunkizun mailari buruzko ebaluazioaren aurrean, honela, antolakuntza arloan hain beharrezkoak diren kritika-autokritika prozesuak ahalbideratuz.

Antolakuntza egituretan aktiboki parte hartzea ohizko eta benazko praktika izango da, bai halaber, bertatik etorritako erabakiak onartzea ere.

Talde-lanaren aldeko ekimena eta taldeok dinamizatzeko gaitasuna ezinbesteko ezaugarriak dira.

Egoitzan bete beharreko orduak benaz bete behar dira, arduren eta berauen ihardunen ondoriozko saibuespenak salbu.

3.- BETEKIZUNEN DEFINIZIOA

3.1.- ESKUALDEA

3.1.1.- EEr, Ant. eta Eiren ardura

3.2.- HERRIALDEA

3.2.1.- Egoitzaren Administrazio Ardura

3.2.2.- Aparatuen ardura

- Antolakuntza
- Komunikazioa
- Idazkaritza Tekniko-Juridikoa
- " " -Ekonomikoa
- Heziketa
- Euskalduntzea

3.2.3.- Eskuhartzeko Egituren Ardura

- Ekintza Sindikala
 - Batasun Sindikalak
 - Azpisektoreak
- Ekintza Erreibindikatiboa
 - Herrialdeko Ardura
 - Negoziazio Kolektiboa

3.3.- NAZIONALA

3.3.1.- Aparatuetako Administrazio Ardura

- Diruzaintza-Kontabilitatea
- Informatika

3.3.2.- "Staff" edo batzordeen Ardura

- Kudeaketa/proiektuak
- Propaganda
- Prentsa

3.3.3.- Aparatuen Ardura

- Antolakuntza
- Komunikazioa
- Idazkaritza Tekniko-Juridikoa
- " " -Ekonomikoa
- Heziketa
- Nazioarteko Harremanak
- Euskalduntzea

3.3.4.- Eskuhartzeko Egituren Ardura

- Ekintza Sindikala
 - Batasun Sindikalak
 - Azpisektoreak
 - Sektoreak
- Ekintza Erreibindikatiboa
 - Ardura Nazionala
 - Negoziazio Kolektiboa
 - Gatazkak
 - Zerbitzu Publikoak

3.1.- ESKUALDEA

3.1.1.- EEr, Ant. eta Eiren ardura

- Eskualdeko ekintza sindikala eta erreibindikatiboa koordinatzea.
- Langile eta sailatal sindikalentzako aholkularitza zuzen eta berehalakoaz (lehenengo mailan) arduratzen den taldea dinamizatzea.
- Eskualdeko Idazkaritza bera dinamizatzea (talde lana sustatuz).
- Eskualdeari dagokionez, antolakuntza-garapenerako finkaturiko helburuak (afiliazioa, ordezkartasun maila, eskualdeko egitura ezberdinen garapena,...) lortzeko dinamika ezberdinak egokitu, segimendua egin eta piztea.
- Parte hartzen duen egituretatik eratorritako erantzunkizun kolektiboak bere gain hartu (Hlr, HI) eta bertan aktiboki parte hartzea.
- Bere prestakuntza osoa zaintzea, bere erantzunkizun mailaren beharrianei lehentasuna emanaz.
- Bere erantzunkizun mailak eskatzen dituen antolakuntza- egituretan aktiboki parte hartzea.

3.2.- HERRIALDEA

3.2.1.- Herrialdeko Egoitzaren Administrazio Ardura

- Egoitza eta bertako egotegien erabilpena eta egoera koordinatzea, beraren erabilera egokia bermatzeko materialea eta behar den guztia ziurtatuz.
- Telefonoa, atea eta langile, afiliatu, e.a.ekiko lehenengo harremana zaintzea, beraren beharriari eta eskaerak ahalik eta eraginkorren bideratzeko xedez.
- Eskutizketa jaso eta banatzea, bai halaber erantzunkizun ezberdinetarako zein bertatik etorritako mandatuak ere.

- Ardura ezberdinek eskatutako administrazio lanak betetzea.
- Ezarritako ordutegia estuki betetzea.
- Bere prestakuntza osoa zaintzea, bere erantzunkizun mailaren beharrianei lehentasuna emanaz.
- Bere erantzunkizun mailak eskatzen dituen antolakuntza- egituretan aktiboki parte hartzea.

3.2.2.- Herrialdeko Aparatuen Ardura

- Herrialde mailan, bertako Aparatu eta egituren lan egitasmoetan zehazturiko zereginak koordinatzea.
- Egitura maila honi dagokion taldea eta beronen menpe daudenak talde lana sustatuz dinamizatzea.
- Herrialdeko aparatuek eta egituretan diseinaturiko helburuak lortzeko ihardun ezberdinak egokitu, segimendua egin eta piztea.
- Bere prestakuntza osoa zaintzea, bere erantzunkizun mailaren beharrianei lehentasuna emanaz.
- Bere erantzunkizun mailak eskatzen dituen antolakuntza- egituretan aktiboki parte hartzea.

3.2.3.- Herrialdeko eskuhartze egituren Ardura

- Batasun Sindikalak (BS), Sailatal sindikalak (Ss), herrialdea, e.a.en ekintza sindikal eta erreibindikatiboa koordinatzea.
- Langile eta sailatal sindikalentzako aholkularitza zuzen eta berehalakoaz (lehenengo mailan) arduratzen diren taldeak dinamizatzea.
- BS, Ss, Herrialdeko Ekintza Erreibindikatiboa, Herrialdeko NK, e.a. etako egiturak eta beraien menpekoak talde lana sustatuz dinamizatzea.

- Bere maila eta maila altuagoi dagozkien eskuhartze egiturek diseinaturiko helburuak lortzeko ihardun ezberdinak egokitu, segimendua egin eta piztea. (Lan egitasmoa).

- Bere prestakuntza osoa zaintzea, bere erantzunkizun mailaren beharrianei lehentasuna emanaz.

- Bere erantzunkizun mailak eskatzen dituen antolakuntza- egituretan aktiboki parte hartzea.

3.3.- NAZIONALA

3.3.1.- Nazio Aparatuetako Administrazio Ardura

- Dagozkien aparatuen lan egitasmoetan hartutako konpromezu eta zereginak betetzea.

- Ezarritako ordutegia estuki betetzea.

- Bere prestakuntza osoa zaintzea bere erantzunkizun mailaren beharrianei lehentasuna emanaz.

- Bere erantzunkizun mailak eskatzen dituen antolakuntza- egituretan aktiboki parte hartzea.

3.3.2.- "Staff" Nazionalen Ardura

- Atxekirik dagoen aparatuen lan egitasmoan zehazturiko nazio mailako zereginak koordinatzea.

- Egitura maila honi dagokion taldea eta beronen menpekoak, talde lana sustatuz dinamizatzea.

- Dagokion aparatuan eta nazio egituretan zehazturiko helburuak lortzeko ihardun ezberdinen segimendua egin eta piztea.

- Bere erantzunkizun mailaren beharrizanei lehentasuna emanaz prestakuntza osoari dedikatzea.

- Bere erantzunkizun mailak eskatzen dituen antolakuntza- egituretan aktiboki parte hartzea.

3.3.3.- Aparatu Nazionalen Ardura

- Behar den egitura zein dagokion aparatuaren lan egitasmoa eta helburuak diseinatu eta planifikatzea, ondoren nazio egituretara nazionaletara helarazteko.

- Nazio Aparatu eta egitura bakoitzaren lan egitasmoetan zehazturiko nazio mailako zereginak koordinatzea.

- Egitura maila honi dagokion taldea eta beronen menpekoak, talde lana sustatuz dinamizatzea.

- Dagokion aparatu eta nazio egituretan diseinaturiko helburuak lortzeko ihardun ezberdinen segimendua egin eta piztea.

- Bere prestakuntza osoa zaintzea bere erantzunkizun mailaren beharrizanei lehentasuna emanaz.

- Bere erantzunkizun mailak eskatzen dituen antolakuntz egituretan aktiboki parte hartzea.

3.3.4.- Eskuhartzerako Nazio Egituren Ardura

- Ekintza Sindikal eta erreibindikatiboari dagokienez, bai beharrezko egitura bai lan egitasmo eta helburua diseinatu eta planifikatzea, ondoren nazio egituretara helarazteko.

- BS, Ss, SS, Nazionala, e.a.eko ekintza sindikal eta erreibindikatiboa koordinatzea.

- Egitura maila honi dagokion taldea eta beronen menpean daudenak talde-lana sustatuz dinamizatzea.

- Eskuhartzeko egitura hauetan eta barne-ordezkaritzakoetan diseinaturiko helburuak lortzeko, ihardunen segimendua egin eta piztea.

- Bere prestakuntza osoa zaintzea, bere erantzunkizun mailaren beharrezanean lehentasuna emanez.

- Bere erantzunkizun mailak eskatzen dituen antolakuntza-egituretan aktiboki parte hartzea.

4.- FUNTZIONAMENDURAKO MEKANISMOAK

4.1.- HELBURU POLITIKA

Une honetatik bertatik ezarri behar ditugu, Sindikatuaren eremu guztietan, zeregin ezberdinak eta arduren eboluzioa aztertzea ahalbideratuko diguten funtzionamendurako jarraibide batzuk.

Printzipioz eta jorratu behar dugun zeregin edo funtzio bakoitzean, beharrezko helburuak zehaztu behar ditugu, eta zenbagarriak diren kasuetan, zehatz mehatz adierazi.

Ondoren, aldizkakotasun jakin batez, zeregin honetarako antolakuntza-marko egokietan, lortutako emaitzak baloratu eta beharrezko gogoetak egin beharko ditugu.

Dinamika honen ondorioek, ardura ezberdinen garapena indibidualak zein kolektiboak- zuzen balioetsi eta beharrezkoa den kasuetan, zuzenketa mekanismoak ezartzeko elementu objektiboak eskainiko dizkigute.

Ebaluazioen maiztasuna, 6 hilabeterokoa.

4.2.- ARDUREN EBALUAKETA MAILAK

Lehenik eta behin, "Liberatuaren Perfila" atalean adierazitako ezaugarriek ardura bakoitzerako ebaluazio maila orokorrak zehaztuko dituztela adierazi behar da.

Ebaluazio maila zehatzak "Zereginen definizioa" izeneko 3. atalaren arabera adieraziko dira Aparatu eta Egituren lan egitasmo ezberdinekin batera.

Ebaluazio hauek egin behar dituzten egiturak honakoak dira:

- Eskualderako (3.1.1. ardura), dagokion herrialdeko Idazkaritza eta Iraunkorraren eskumenekoak izango dira, aurretiaz Eskualdeko Idazkaritzarekin kontrastatutakoan.

- Herrialderako (3.2.1. - 3.2.2. - 3.2.3. ardurak), dagokion herrialdeko Idazkaritza eta Iraunkorraren eskumenekoak izango dira, aurretiaz funtzio horiek betetzen dituen aparatu edo egiturekin kontrastatutakoan.

- Naziorako (3.3.1. - 3.3.2. - 3.3.3 - 3.3.4. ardurak), Idazkaritza eta Iraunkor Nazionalaren eskumenekoak izango dira, aurretiaz funtzio horiek betetzen dituen aparatu edo egiturekin kontrastatutakoan.

Ezin ahantz daiteke mekanismo honek berebiziko garrantzia daukala erakunde osoak eraginkortasunez ihardun dezan, ez eta lan egitasmoak eta berauen helburuak diren bestelako tresnen daukala beharra ere.

Lan Egitasmo ezberdinak eta berauen zehaztapenak Idazkaritza Nazionalari aurkeztu eta beronek onartu egingo ditu, Iraunkorraren beraren dinamizazio eta babespean.

4.3.- KOKAPEN ETA BIRKOKAPENAK

Liberatuak aldeko jarrera eduki behar du dauzkagun giza bitartekoak arrazionaldu eta bertatik errentagarritasun hobea lortzeko xedez objektiboki erabakitzen diren birkokapenei dagokienez.

4.4.- LIBERATUEN BILERA

Ez da lehenengo aldiz balioesten honakoa; aurretiaz egindako lanen batean ere egoki eritzi zitzaion hainbat esperientzia, arazo jakin batzuk, ezagupena, e.a. trukatzeko.

Bilera hau dagokien egituren pean egongo da kasuan kasu, eta herrialde zein nazio mailan burutu ahal izango da, baina abagunearen arabera eta egiturak berak edukinez hustuko dituen dinamikan sartu gabe.

5.- DINAMIKA HAUEK GARATZEKO MEKANISMOAK

4.5.- BULEGO ORDUTEGIA

Bulego ordutegia 9,30 eta 13,30 h. eta 16 eta 20 h. artekoa izango da eta hertsiki errespetatuko da.

4.6.- OPORRALDIA

Oporrak eremu ezberdinetan planifikatuko dira, nazio zein herrialde mailan, halako moldez non, liberatuen oporraldia uztaila eta abuztuaren artean egongo baita, eta beti ere, abuztuan herrialdeko egoitzak zabalik egongo direla kontutan hartuz.

4.7.- EGOITZATIKO AUSENTZIAK

Une orotan eduki beharko da ausentzien berri eta berauen zioena.

4.8.- KONTROLA ETA BURUTZAPENA

Arlo honetako ardura, maila ezberdinetako zuzendaritza egituren menpe dagoela kontutan hartuz, lehenengo eta behin, erabakitzen diren neurrien segimendua egin eta gauzatzeko ardura figura jakin baten esku jarri behar dugu.

Antolakuntzaren Arduradun Nazionala eta Herrialdeko Koordinatzaileak, bai halaber, Herrialdeko Antolakuntzaren Arduradunek ere, beren ardurapean edukiko dute dinamika ezberdinen kontrola dagozkien egituretan ekarpenak egin, balioetsi eta bertan erabakitzen diren neurriak burutzeko.

5.- DINAMIKA HAUEK GARATZEKO MEKANISMOAK

Eztabaida amaitu eta Idazkaritza Nazionalak onartutakoan beharrezko deritzogu Antolakuntzarako Arduradun Nazionalak eta Herrialdeko Koordinatzaileek liberatu bakoitzarekin elkarrizketatzea, eman nahi den aurrerapausoari irtenbidea eman eta bakoitzaren iritzia jakiteko.